

## 'Egunkaria' bultzatzeko batzordea sortu da herrian eta manifestazioa egingo da igandean

■ Bestalde, Udalak Egunkariaren aldeko mozio bat onartu du, ahobatez Pleno berezi batean

EUSKALDUNON Egunkaria ixteak ekarri duen egoerari buelta emateko batzordeak sortzen ari dira herrietan. Hernanin asteazkenean egin zen bilera batzordea sortu eta aurrera begira zer egin erabakitzeke. Oraingoan, bi iniziatiba nagusi jarriko dira martxan: batetik, dirua bildu eta Egunkariaren harpide berriak egiteko kanpaina egingo da; eta bestetik, iganderako manifestazio zabala konbokatuko da, Euskaldunon Egunkaria zabalteko eta atxilotutako pertsona guztiak libre uztea eskatzeko. Batzordea gizarte erakunde, alderdi eta pertsonen atxikimenduak biltzen arituko da egun hauetan.

### Plenoak mozio bat onartu du unanimitatez

Udalak asteazkenean Pleno Berezia egin zuen eta Egunkariaren aldeko mozio bat onartu zuen aho batez, PSE-EEko zinegotzirik ez zela. Mozioak salatzen du "Euskaldunon Egunkariaren aurkako operazio polizial-judiziala" eta "oinarizko giza eskubideak, adierazpen askatasuna eta informazio eskubideak" urratu izana.

Horrekin batera, SA eta EA-EAJren botoekin onartutako mozioak dio Espainiak indarkeriarekin nahastu nahi dituela euskera eta euskal-



Atzo Euskaltzaindiako kideek parte hartu zuten kontzentrazioan.

### Manifestazioren adierazpena

#### Egunkaria aurrera, atxilotu guztiak askatu.

Egun hauetan Guardia Zibilak 10 pertsona atxilotu ditu eta miaketak egin ditu Jakin aldizkarian, Argia aldizkarian eta Ikastolen Federazioko bulegoetan. Del Olmo epaileak agindutako operazio horretan, Euskaldunon Egunkaria itxi egin dute eta hainbat pertsonen diru kontuak blokeatu dituzte.

Estatu espainiarrek ez ditu errespetatu ez pertsonen erregabetasun printzipioa, ez duintasuna, eta ez atxilotuen osasuna. Operazio honek adierazpen askatasuna eta informazio eskubidea urratu egin ditu eta euskera eta euskal gizarte kriminalizatzeko ahalegin politikoa izan da.

#### Idatzi hau sinatzen dugunok:

1. Gure elkartasuna adierazten diegu, batetik Egunkariaren kontrako operazioan atxilotutako pertsona eta familiakoei, bereziki Hernanin bizi den Pello Zubiria eta bere familiakoei; eta bestetik Egunkariako langileei.
2. Eskatzen dugu atxilotutako pertsona guztiak lehenbailehen askatu eta Egunkaria irekitzeko.
3. Konpromisoa hartzen dugu, euskeraren alde lanean jarraitzeko eta Egunkaria aurrera ateratzeko.
4. Manifestaziorako dei egiten dugu. Igandean, martxoaren 2an, arratsaldeko 7etan, Gudariaren plazan.

gintzan lanean dabilen guztia.

Udalak elkartasuna adierazi die atxilotutakoei, beren senideei eta Egunkariako langileei, eta kezkatuta dago atxilotuek tratatu txarrak salatu dituztelako eta gertatu dena argitzea eskatu du. Mozioak dio Udalak kezka berezia duela Pello Zubiria herritarren egoeratik, "osasun egoera larrian egon da inolako begirunerik gabe" tratatu dutelako. Maiores Etxeberria, Pello Zubiriaren emaztea, Udaletxeko langilea da eta ordezkari politikoek elkartasun berezia eta hurbiltasuna adierazi diote, berari eta familia osoari.

Azkenik, Udalak eskatu du Euskaldunon egunkaria irekitzeko, eta proiektua lagunduko duela adierazi du. □

## Inauteriak gaur hasiko dira

HERNANIKO Inauteriak gaur arratsaldean hasiko dira, eta umeak eta Kaldereroak izango dira ekitaldiko protagonista nagusiak. Hasiera ekitaldia Udaletxean egingo da 15:30etan, eta Urumeako ikasleek moldatuko dute aurretan. Bestalde, Elur-Txori elkarteak eskerroneko omenaldia jasoko du Kaldereroak antolatzeagatik. Giroa animatzeko buruhandiak eta erraldoiak ibiliko dira, Urumeako txarangarekin batean. Arratsaldeko 17:00etan, Enetz taldeak joko du Plaza Berrian.

Latsunben, Langileko txikiak Ikasle gehienak Udaletxeko plazan izango dira gaur, baina, Langile ikastolako txikiak Latsunbeko futbol zelaian egingo dute naturaren inguruko ipui baten errepresentazioa. Ekitaldia 15:15etan hasiko da. □

## Euskaltzaindia Hernanin

EUSKALTZAINDIK Hernaniko Udaletxean egingo ditu 13garren Barne Jardunaldiak, Kardaberazzen IIIgarren mendeurrena dela-eta. Aurrena, goizeko 10:00etan hileko bilera egingo du eta ondoren, Barne Jardunaldiak egingo ditu gaur eta bihar. □

## Enkartelada gaur presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko

ETXERAT elkarteak hileroko enkartelada egingo du gaur, 20:00etan Plazan, Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko. Lema *Guztion artean euskal presoak Euskal Herrira* da. Etxerat elkarteak dei egin die hernaniar guztiei enkarteladan parte hartzeko. □

## Pello Zubiria UVIn dago eta "oso gogorra" izan dela esan du

■ Epaileak Zubiria kartzelan sartzeko agindu du eta sendatzean Soto del Realera eramango dute.

PELLO Zubiria Egunkariako aurreneko zuzendaria Zainketa Bereziatiko gelan dago eta familiak "oso ahul eta triste" ikusi du. Zazpi egun inkomunikatuta egonda gero, familiak atzo ikusi zuen hamar

mintuz. Malores Etxeberria emazteak ahul, mehe eta triste bilatu du Pello Zubiria. Komunikabidei azaldu dienez, Pello ez da ibiltzeko gauza eta neumonia harrapatu du. Egunean hamar minutuko bi

bisita egiteko baimena eman dio epaileak familiari. Oraindik Zubiriak ia ez du hitz egin jasotako tratuari buruz, baina, "oso gogorra" izan dela esan du Egunkariako lehenengo zuzendariak. Epaileak

leak Pello Zubiria Soto del Real kartzelan sartzeko agindua eman du, ETArekin lotura duela leporatuta. Hala ere, oraingoan Zubiriak Gregorio Marañonen segituko du sendatu artean. □

**MARTXOKO ESKAINTZA BEREZIA**  
**TENERIFE**  
Martxoak 5 - 6. Bilbotik aterata.  
- ACUARIO Hotela \*\* MP: 190 euro  
- SUR DE TENERIFE \*\*\*\* MP: 335 euro  
- SOL TENERIFE \*\*\*\* MP: 377 euro  
+ TASAK 18 euro

**HERNANI BIDAIAK**  
Urbieta etorb. 6 - ☎: 943 330049 - 330174  
e-mail: hernanib@teletel.es  
Konponketa lanak direla eta, kalean beste aldean gaude, bolada baterako.

**Jatetxea**


**Venta Berri**  
Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
Larunbatetan itxita.

**BASERRIKO SAGARDOA**

**Goiko Lastola Sagardotegia**  
Sagardogintza mantendu duten baserritarren omenez.

EREÑOZU AUZOA  
TEL: 943553272  
HERNANI

## PELOTA - KRONIKA TXAPELKETA



Pelota partiduak Tilosetan jokatzen dira larunbat arratsaldean, ateri denean.

## Zabala-Garmendia eta Zelaia-Urdangarin bikoteek partidu guztiak irabazi dituzte orain artekoan

■ Inoiz baino bikote gehiago eta nibel ona dago aurten, parte hartzaileen esanetan ■ Aste Santuetarako, 13 bikotetatik 6ek egin dute aurrera.

HIRUGARREN Kronika Pelota Txapelketa aurrera dijoa, eta aurten ere iazko txapelduak daude goiko muturrean. Zabala-Garmendiak jokatutako 9 partiduak irabazi dituzte eta Zelaia-Urdangarinekin batean dira partidurik galdu gabeak.

### San Joanak artean

Ligilako lehen fasea Aste Santurako bukatuko da eta lehenengo 6 bikoteek egingo dute aurrera. Sei bikote hauek beste ligila bat hasiko dute buelta bakarrera eta lau onenek jokatuko dituzte finalurrekoak: lehenengoak laugarrenaren kontra eta bigarrenak hirugarrenen kontra. Irabazleek finala jokatuko dute eta galtzaileek 3-4 postua, San Joanetan.

### Maila ona

Inoiz baino bikote gehiagok eman du izena aurten eta parte hartzaileen mailak ere gora egin du, hiru urteetan parte hartu dutenek diotenez. Oraingoz faborito Zabala-Garmendia dira, baina, dagoeneko gerra pix-

ka bat eman dieten bikoteak badira (Fernando-Pablok 17 tanto egin dizkiete, adibidez). Partidurik galdu gabeko beste bikotea Zelaia-Urdangarin da eta joko puntu ona lortu dute aurten. Bi bikoteek laister jokatuko dute elkarren kontra. □

	BIKOTEAK	Jokatuak	Irabaziak	Puntuak
1	ZABALA-GARMENDIA	9	9	18
2	ZELAIA - URDANGARIN	6	6	12
3	LEGARRETA - EZEIZA	6	5	11
4	MUJIKI-EGAÑA	7	3	10
5	PABLO - FERNANDO	6	3	9
6	ZAPI-ETXEBERRIA	7	2	9
7	URTZI G. - UNAI KIJERA	7	2	9
8	URTZI - UGAITZ	6	2	8
9	JOSEBA - IÑAKI MINER	7	1	8
10	IKER - AIHEKO	5	2	7
11	TUTU - IÑAKI	4	2	6
12	TXUTXI - KOLDO	5	1	6
13	HUIZI - VILLAR	3	2	5

### JASOTA BEZALA

Hernaniko Osasun Zentruko sinatzaileok gure paziente den Pello Zubiriari eta bide batez atxilotutako guztiei, elkartasuna azaldu nahi diegu eta libre utzi ditzatela eskatzen dugu.

Marta Barandiaran, Carmen Ibarburu, Maite Arruabarrena, Mertxe Castro, Olatz Mendizabal, Anselmo Barandiaran, Carmen Otermin, Pili Gorrotxategi, Jon Anasagasti, Amaia Maestu,

Eulogia Zabala, Maite Collado, Ane Linder, Maite Goñi, Simon Gurrutxaga Carmen Blanco, Consuelo Aberasturi, M<sup>a</sup> Pilar Huarte, Manuel Altuna eta Belen Lopez.

## HITZ BITAN



Joseba Lizeagak lehen partidua jokatuko du Autonomia mailan.

### MAHAI TENISA

**Easo-Hernanik galdu, nahiz eta gerra eman.** Easo Hernanik kategoria galdua dauka dagoeneko, baina, asteburu honetan hortzak erakutsi dizkio Covibar taldeari. Kim Pla, Gorka Gereñu eta Zuhaitz Irastorzak 4-3 galdu zuten gogotik borrokatu arren. Hernaniri hiru partidu gelditzen zaizkio denboraldia bukatzeko. Dagoeneko maila galdua du eta datorren urtean berriz igotzeko preparatzen hasi nahi dute. Bestalde, Autonomia mailan, Txema Armentia, Mikel Martin eta Joseba Lizeagak 4-1 irabazi zioten Etxaiak-Itugarpe taldeari. Orain, Arauko-Sansomendi liderrarekin batera dijoaz, eta ondo izatera, azkeneko jardunaldian jokatuko dute liga elkarren kontra. Probintzia mailako taldeak, berriz, 5-2 irabazi dio Etxadiri eta lehenengo fase hau lehen postuan bukatu dute. Datorren astean hasiko dute titulorako play offa.

### BERTSOLARITZA

**Aritz Zerain gaur Orixe txapelketan.** Añorga eta Errekalden ari dira jokatzen bertsolari gazteen Orixe txapelketa. Gaur Añorgako Jolasetxean neurtuko dira Aritz Zerain hernaniarra eta Iratxe Ibarra, Etxaun Lekue, Bixente Gorostidi, Iñigo Manzisidor *Mantxi* eta Amaia Agirre. Finalurreko gogorra tokatu zaio Zeraini aurrera egiteko, baina, lehenengo astean, Iñaki Zelaia eta Estitxu Eizagirre hernaniarrek aurrerako txartela lortu zuten eta motibazio berezia izango du finalerako. Saioa afalostean izango da, 22:30etan.

### ESKOLA KIROLA

**Hiru emaitza.** Aurreko asteburuko kirol emaitzak: Boleibol kadeteak: Langilek 1-Larramendik 3; Areto futbola infantilak: Langilek 1-La Sallek 4; eta saskibaloia infantilak: Langilek 36-Lujanbiok 37. Datorren asteburuan ez da eskola kirol inauteriak direla-eta. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
 ► Udaltzaingoa: 943 333288  
 ► DYA: 943 464622  
 ► Autobusak: 943 556662  
 ► Anbulatorioa: 943 006666  
 ► Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

► Eguez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7  
 ☎ 943 552941  
 ► Gaez: Tanco Urnieta. San Juan 36  
 ☎ 943 550942

### IRAGARKI MERKEAK

Geologian lizentziatua den eta Gizarte Hezkuntzak ikasten ari den neska batek klase partikularrik ematen ditu. DBH eta BATXILERGO maila. Esperientzia: **943 33 53 15**

Neska bat behar da jabetze batean lana egiteko. Kotxea beharrezkoa. Deitu: **667 20 87 02** (Arratsaldeko 18:00etatik aurrera)

Komertziala behar da Donostialderako. Kotxea beharrezkoa. Deitu: **661 52 38 39**

Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AEN Aren konbokatorea. Ezinbestekoa: Diplomatura edo lizentziatura. Ingelesa. ADOZ: **943 44 45 09**

AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserba naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoa: Graduatua. ADOZ: **943 44 45 09**

TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun titulua lortu ezazu. ADOZ: **943 44 45 09**

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdiarako. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialdiarako. ADOZ: **943 444509**

BANKU eta AURREZKI KUTXA arako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoa: B.U.P. Datozen deialdiarako. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

Txofer, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: **943 444509**

## Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

# Egin zaitez harpidedun

(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu **943 30 35 55**

deitu **943 30 35 54**

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Egunero